

LUZIAN... MOCH

RAIN baño sasoi obia nekarren, 1862-ko igande goiz batian, nere lagunakiñ portale zarretik murru ondoko pelota jokura ginjuazenan. Jokatu biar genduben partiduba ustez patrikeran genekan, baña..... patrikeratik itzul egin zigun.

Ez zan orain bezela urdiñik eta gorririk, ez ta ere *tongorik* eta bes-te gaurko eguneko saltzik, eta..... ez ta nai ere.

Kontrariyuak genituben Anbro-sio Istillarte sakatzalle zala, Juan Maria Groch, Jose Ramon Sagardia eta Bautista Goroztiaga.

Eta guriak berriz: Bautista Soto (maisuba), Santiago Zabaleta, Ra-mon Artola eta ni sakatzalle.

Batzubetatik eta bestietatik, bizi geranak, illian erretena erresē atera-tzeko tankeran arkitzen gera.

Panparroi juan giñan pelota jo-Kura. Onuntzian baño aruntzian panparroyago.

Luzian genduben partiduba; bai, luzian zan, baña gu moch gelditu giñan, oso moch.

¡Ain moch! Zanpa, zanpa egin ginduzten! ¡Ez ziguten bururik al-chatzen ere utzi!

Azkenian Ramón Artola gisarajuak besua autzi ta Petrikillo-ren gana juan biar izan zuben antolatzera.

Alaz guztiz, besua iya galduban ibillyagatik umore ona ez zuben



batere galdu, eta jarri zituben, neuritz batzubek, atzo artzaldekuak balira bezela goguan dakazkitenak. Ala nola ziran:



Gure kontrariyuak
sakalariya,
askok bildurra diyon
jokalariya.
EZ gera gauza arrentzat
bera sobra danentzat
esagutuba daukagu
pelotari ontzat.

A zer pelotariyak
nere lagunak
Gu gera, partiduba
galdu degunak.
Batek jotzen ez bazuben,
bestiak ikutzen etzuben,...
Aiza pelotak gu gandik
eskapatzan zuben!

Partidu bat pelotan
(geren kaltian)
jokatu degu aurten
jai goiz batian
Lau lau tara giñan azi
maisubenaik irabazi.
Galtzalliaik obe degu
geyago ikasi.

Bederatz jokuban,
iru ta treinta,
ginduzten gu atera
oso ler egin ta;
lau falta sei utz egin
ondo jo ta ezin kintse egin,
«traniyan ari al giñan»
ziguten ots egin.

Esana gati kalkarri:
«or bertan egon ari»,
pelota ikusi orduko
guztiyok jo nai
«Utzi utzi» «Au neretzat»
Al zubenak nor beretzat.
Guchi jo nituben pena
oraindik juan etzait.



JOSÉ ZAPIRAIN